

Jarraian zehazten den proposamena, zalantzarik gabe, Eibarko Udalaren elementu bereizgarrienen beste bisio bat da. Gurutzeak, markaren elementu nagusiak, pisu espezifikoak du. Keinu-exekuziozkoa izateak kutsu modernoagoa ematen dio multzoari, artistikoagoa, herrian oso sustraituta dagoen tradizio baten arabera; ez dezagun ahaztu, Eibar pintore famatuen sehaska izan zela. Pintzelkada bat da, freskotasuna eta abangoardia darion grafismo bat.

Horri kontrajarrita, eta orban handi hori konpentsatzeko, elementu geometrikoek lagundu egiten dute zeinu grafikoa zentratzen eta kuadratu egiten dute logotipoa, berehala modu formalean identifikatzeko. Eskuineko karratuak Udala, Udalbatza ordezkatzeko du, eta konposizioa orekatzen du. Karratu horrek tonalitatea aldatuko du entitate, patronatu edo fundazio, zein den. Erabilitako letra tipoa Eagle da: argia eta garbia da, *sans serif* alegia, ez du bere murrizketa zailduko lukeen elementu grafikorik, eta markari irakurgarritasun garbia ematen dio, batere zalantzarik gabea.

Logotipoak eta zeinu grafikoak osatzen duten multzoak egitura horizontal bat osatzen du, oso gomendagarria ikusgaitasun handiko aplikazioetarako (paperak, kartelak, errotuluak...).

Azken emaitza oso marka ikusgarria da, erraz ezagutzeko modukoa eta, batez ere, oso pertsonala.

## 1.1 Sinbologia

Jarraian zehazten den proposamena, zalantzarik gabe, Eibarko Udalaren elementu bereizgarrienen beste bisio bat da. Gurutzeak, markaren elementu nagusiak, bere pisu espezifikoak du. Keinu-exekuziozkoa izateak kutsu modernoagoa, artistikoagoa ematen dio multzoari. Pintzelada bat da, freskotasuna eta abangoardia darion grafismo bat.



## 1.2 Logotipoa

Logotiporako erabilitako tipografiak argiak eta oso orekatuak dira. Garrantzi handiagoa ematen diogu "Eibarko Udala" euskaraz agertzen den laukizuzenari Eagle-Black letra tipoarekin, beltzaren % 79ko portzentaje baten gainean kalatua, edo, gauza bera dena, 425 pantonea.

**EIBARKO UDALA**

**Eibarko Udala**  
Ayuntamiento de Eibar

Identitate korporatiboaren  
proiektua


## 1.3 Marka

Markak biak jasotzen ditu, ikurra eta logotipoa, eta multzo grafiko osoa eta bereizgarria da. 201 pantonea ikurraren kolorea da, 425 pantonea "Eibarko Udala" testua jasotzen duen orban grisa da, eta 302 pantone urdina da logotipoaren eskuinean dagoen karratuaren kolorea.



## 1.4 Proportzioak

Marka erretikula batetik abiatuta eraiki da, zeinak proportzio eta neurri egokiak ematen dizkion. Erretikula hori izango da jarraitu beharreko erreferentzia, ikurra eskuz erreproduzitu behar denean, ez modu digitalean. Erantsitako figurak argi erakusten du zein diren eraikuntzaren prozesua eta errespetatu beharreko neurriak.



# Ayuntamiento de Eibar

$1/2x$

$1/2x$

**Eibarko Udala**  
Ayuntamiento de Eibar

Identitate korporatiboaren  
proiektua

## 1.5 Segurtasun-eremua

Argitalpenen ediziorako, "salbuespen gune" bat zedarritzen da logotipoaren inguruan, haren irakurgarritasuna bermatzeko. Gune hori errespetatu egin beharko da marka erreproduzitzen den kasu guztietan.



## 1.6 Murrizketa-testa

Murriztapen-testarekin erakusten da zein den marka edo ikur grafikoa erreproduzitzeko forma minimoa. Horren azpitik markak erreprodukzio txarra izateko eta markaren irudiari kalte egiteko arriskua du.





## 1.7 Kolore-aldaketak

Marka ezin da beti kolorean erreproduzitu; hortaz, jarraian hainbat posibilitate erakusten dira: Bat beltzean erabat, ez dagoenean aukerarik ez kolorean egiteko, ez beltz-bilbeetan egiteko. Bestea grisen eskalan, ahalik eta gehien gerturatzeko zuri-beltzean erreproduzitzeak kolorearekiko eragiten duen tonu-efektura.



## 1.8 Bertsio negatiboa

Identifikatzaile korporatiboa edo marka ezin da beti positiboan erabili. Hala, erreprodukzioa hondo ilunen gainean egin behar denean, beharrezkoa da kontraste perfektu bat, identifikazio erraz bat egitea eta esfortzurik gabe irakurtzea bermatuko duena. Halako kasuetan, bertsio negatiboa erabiltzen da, markaren egitura eta neurriak batere aldatu gabe. Logotipoa negatiboan erreproduzitzen da, baldin eta inprimatzen deneko hondoa beltzaren % 55ekoa edo hortik gorakoa bada.



## 1.9 Kolore-sistema

Koloreak marka ororen nortasuna erabakitzen duten faktoreak dira. Haiek egoki hautatu eta erreproduzitzearen mende dago, neurri handi batean, azkar identifikatzea eta, ondorioz, enpresa-jarduerarekin lotzea.

Kolore korporatiboek honako zehaztapen hauei erantzuten diete:

201 Pantone gorria, 302 Pantone urdina, 425 Pantone grisa.



PANTONE 201



PANTONE 302



PANTONE 425

## 1.9.1 Kolore primarioak

Kolore primarioak dira marka erreproduzitzeko tonu nagusiak. Markaren gama kromatiko identifikagarria zehazten duten koloreak dira. Erreproduzitzeko lau sistema proposatzen dira: pantone sistema, hedatuena da eta unibertsalena. Kuatrikromia sistema, sistema honekin erreproduzitzen diren argitalpenen kasuan erabiltzen da. RGB sistema edo pantaila-koloreak, argi-koloreak dira eta horiek dira aukeratzen direnak monitore batean erreproduzitu behar badira, izan ordenagailua izan telebista. HTML sistema, marka web-orri batean agertuz gero erabiltzen dena.

### PANTONE SISTEMA®


### KUATRIKROMIA SISTEMA

### RGB SISTEMA

### HTML SISTEMA



PANTONE 201




137	21	54
Red	Green	Blue

990000-153r 0



PANTONE 302




0	54	87
Red	Green	Blue

003366-0r 51g



PANTONE 425




79	80	80
Red	Green	Blue

#666666

## 1.9.2 Bigarren mailako koloreak

Markaren kolore ez-nagusiak dira. Kolore hauek erabiliko dira bereizketa kromatikoak egin behar diren apartatu edo sekzioentzat, marka nagusiaren azpibanaketak izateagatik. Hau da Erakunde Nagusiaren mendeko organismo, fundazio edo patronatuen kasua.

PANTONE SISTEMA®	KUATRIKROMIA SISTEMA	RGB SISTEMA	WEB SAFE COLOR LIBRARY							
 <p>PANTONE 2572</p>	<table border="1"> <tr> <td>34% Cyan</td> <td>51% Magenta</td> </tr> <tr> <td></td> <td></td> </tr> </table>	34% Cyan	51% Magenta			<table border="1"> <tr> <td>166 Red</td> <td>106 Green</td> <td>215 Blue</td> </tr> </table>	166 Red	106 Green	215 Blue	996699-153r 102g
34% Cyan	51% Magenta									
166 Red	106 Green	215 Blue								
 <p>PANTONE 7467</p>	<table border="1"> <tr> <td>95% Cyan</td> <td></td> </tr> <tr> <td>25% Allo</td> <td>15% Beltza</td> </tr> </table>	95% Cyan		25% Allo	15% Beltza	<table border="1"> <tr> <td>0 Red</td> <td>115 Green</td> <td>137 Blue</td> </tr> </table>	0 Red	115 Green	137 Blue	336666-51r 102g
95% Cyan										
25% Allo	15% Beltza									
0 Red	115 Green	137 Blue								
 <p>PANTONE 7479</p>	<table border="1"> <tr> <td>55% Cyan</td> <td></td> </tr> <tr> <td>50% Allo</td> <td></td> </tr> </table>	55% Cyan		50% Allo		<table border="1"> <tr> <td>63 Red</td> <td>169 Green</td> <td>126 Blue</td> </tr> </table>	63 Red	169 Green	126 Blue	009966-0r 153g
55% Cyan										
50% Allo										
63 Red	169 Green	126 Blue								
 <p>PANTONE 2582</p>	<table border="1"> <tr> <td>91% Cyan</td> <td>43% Magenta</td> </tr> <tr> <td></td> <td></td> </tr> </table>	91% Cyan	43% Magenta			<table border="1"> <tr> <td>17 Red</td> <td>96 Green</td> <td>198 Blue</td> </tr> </table>	17 Red	96 Green	198 Blue	006699-0r 102g
91% Cyan	43% Magenta									
17 Red	96 Green	198 Blue								

## 1.10 Tipografia korporatiboa

Oinarrizko ohiko terminologiaren arabera, logotipoa izenaren forma ematen diona da, alegia, Eibarko Udala-Ayuntamiento de Eibar-. Horren tipografia espezifikoa Eagle familiako tipografia da. Bilatu da logotipoak irakurgarritasun maila handiena izatea, eta, horretarako, "Eibarko Udala" kaxa altuan eratu da. Azpian, aukeratutako alfabeto korporatiboa erakusten da osorik.

### Eagle-Black

**ABCDEFGHIJKLMNÑOPQRSTUVWXYZ**  
**abcdefghijklmnñopqrstuvwxyz**

### Eagle-book

ABCDEFGHIJKLMNÑOPQRSTUVWXYZ  
abcdefghijklmnñopqrstuvwxyz

## 1.10.1 Tipografia bateragarria

Tipografia korporatiboa, bere egitura pertsonalagatik, ez da komeni erabiltzea testu jarraitua bezalako inprimakietan. Logotipoarentzat soilik gordeko dugu. Beraz, proposatzen dugu tipografia irakurterraz eta pertsonal bat, tipografia nagusiari lagunduko diona. *San serif* erakoa izango da. News Gothic-en familia erabiliko da, eta, kasu zehatzetan, printzipala ez badago eskuragarri, familia bereko beste ordezeko batzuk erabil daitezke, hala nola, Helvetica, Univers, Frutiger edo Gill Sans.

News Gothic Regular

ABCDEFGHIJKLMNOPQRSTUVWXYZ  
abcdefghijklmnopqrstuvwxyz

News Gothic Oblique

*ABCDEFGHIJKLMNOPQRSTUVWXYZ*  
*abcdefghijklmnopqrstuvwxyz*

News Gothic Bold

**ABCDEFGHIJKLMNOPQRSTUVWXYZ**  
**abcdefghijklmnopqrstuvwxyz**

News Gothic Bold Oblique

***ABCDEFGHIJKLMNOPQRSTUVWXYZ***  
***abcdefghijklmnopqrstuvwxyz***

Eibarko Udala  
Ayuntamiento de Eibar

Identitate korporatiboaren  
proiektua